

GOBERNU BATZARRA

2016. 04. 11

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko apirilaren hamaikan, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peón Ormazabal	
Zinegotziak:	
Nerea Letamendia Belloso Iñigo Alonso Sarasibar	
Idazkaria:	
Jose Luis Unanue Ugalde	1.- Aurreko akta onartzea.
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	2.- Abegi eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena eta dirulaguntza.
Paulino Alonso Eraso	3.-Iurramendi Egoitza. Martxoko faktura.
	4.-2016ko auzoetako dirulaguntzak onartzea.
	5.-Trianguloko Lurrazpiko aparkalekuetako erabiltzaileekin sinatu beharreko hitzarmenaren aldaketa, eta aurrekontu berria eta obra pleguak onartzea.
	6.-7/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko apirilaren 4an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Abegi eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena eta dirulaguntza.

Gobernu Batzarrak, 2015eko otsailaren 27an, Abegiri 68.300 euroko dirulaguntza ematea onartu zuen.

Abegikoez dirulaguntza eskuratzeko, besteak beste, hitzarmen ekonomikoa sinatu behar zuten.

Bestalde, Abegikoez 2015. urteari dagozkion kontuak aurkeztu dituzte. Urtean egindako gastuen eta Foru Idundiak emandako dirusarreraren arteko aldea 37.500 euro izan da.

Horiek horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Hitzarmen ekonomikoa onartzea.

BIGARRENA.- Dirulaguntza zerbitzuak sortutako gastuei egokitzea eta horren arabera, 2015eko laugarren hiruhilekoa ez ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Jasotako dirukopurua eta defizita estaltzeko behar denaren arteko aldea, hau da, 13.725,00 euro, udal honi bueltatzeko eskatzea Abegiri.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Abegiri, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

3.- lurremendi Egoitza. Martxoko faktura.

lurremendi egoitzak martxoko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurremendi egoitzari ordaintzea martxoko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **17.194,97 €**-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 649,76 €
Elbarrien defizita: 16.545,21 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

4.- 2016ko auzoetako dirulaguntzak onartzea.

Festa batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, aurtengo auzoetako jaiek eta jarduerak sortutako gastuei aurre egiteko, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Honako dirulaguntza hauek ematea:

Amarotz	26.757,00
San Esteban	5.477,00
Berazubi	4.425,00
Olarrain	1.357,00
San Blas	1.575,00
Izaskun	4.425,00
Larramendi	4.425,00
Izaskun	4.425,00
Alde Zaharra	1.556,00
Alliri	500,00
GUZTIRA	50.497,00

BIGARRENA.- Alliriren 500 euroko dirulaguntza aurtengo Kreditu Aldaketari baldintzatuta egongo dela adieraztea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Berdintasuna, Gazteria, Festak, Partaidetza eta Kultura departamentuari.

5.-Trianguloko Lurrazpiko aparkalekuetako erabiltzaileekin sinatu beharreko hitzarmenaren aldaketa, eta aurrekontu berria eta obra pleguak onartzea.

Bi mila hamabosteko azaroaren 30ean, Gobernu Batzarrak Tolosako Triangulo Plazako lurrazpiko aparkalekuetarako oinezko sarrerak birgaitzeko lanei buruzko hitzarmena onartu

zuen. Hitzarmenaren bi aldeak Tolosako Udala eta Trianguloko Erabiltzaileen Komunitatea dira.

Obrak esleitzeko prozedura abian jarri eta hainbat gonbidapen egin zitzairen Tolosako enpresa eraikitzaileei. Jasotako proposamenen arabera egiaztatu da obren aurrekontua ez dela egokia eta prezioak merkatuak ezarritakoak baino txikiagoak direla. Ondorioz, aurrekontua egokitu behar izan da, nahiz eta proiektua gainontzean bere horretan mantentzen den. Gauzak horrela, proiektuaren aurrekontu berria onartu behar da.

Gainera, Hirigintza batzordeak, 2016ko martxoaren 16an, proposatu zuen obrak prozedura ireki bidez esleitzea.

Baita ere, Gobernu Batzarrak 2015eko azaroaren 30ean onartutako Hitzarmena aldatu egin behar da, aurrekontu berriari egokitze aldera.

Gauzak horrela, Hirigintzaburuak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Triangulo Plazako lurrazpiko aparkalekuetarako oinezko sarrerak birgaitzeko lanen aurrekontu berria onartzea, kopurua: 71.388,83 euro (BEZ barne).

BIGARRENA.- Obrak esleitzeko kontratazio pleguak onartzea.

HIRUGARRENA.- 2015eko azaroaren 30ean Gobernu Batzarrak onartu zuen Tolosako Udal eta aparkalekuen erabiltzaileen arteko Hitzarmena aldatzea, udalak ordaindu beharreko kopurua azaltzeko.

6.-7/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **7/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **179.988,14 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **7/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:30etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde